



Iak

Izaskun Arrue
Kulturgunea

IZASKUN
ARRUE
KULTURGUNEKO
tabernaren esleipena

SARRERA. KONTRATUAREN XEDEA	3
BALDINTZA TEKNIKOAK	4
1. INSTALAZIOEN DESKRIBAPENA	4
2. EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA	5
3. JENDAURREKO PREZIOAK.....	5
4. BETEKIZUNAK ETA ESKUBIDEAK.....	6
4.1 ENPRESAREN BETEKIZUNAK	6
4.2 ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK	8
BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA JURIDIKOAK.....	8
5. BALDINTZA EKONOMIKOAK. KANONA, HOBEKUNTZA ETA BERMEA.....	8
6. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA LUZAPENA.....	9
7. ENPRESAREN GAITASUNA.....	9
8. ASEGURUA	10
9. ENPRESA-KOORDINAZIOA (LAP).....	10
10. ARRISKUA ETA MENTURA	11
PROPOSAMENEN ESLEIPENA ETA AURKEZPENA.....	11
11. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.....	11
12. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA, TOKIA ETA EPEA:.....	12
13. ARAU-HAUSTEAK, PENALIZAZIOAK ETA GORABEHERAK	13
ERANSKINAK	15

SARRERA. KONTRATUAREN XEDEA

Izaskun Arrue Kulturgunea (hemendik aurrera IAK) euskarazko aisialdi, sorkuntza eta kultura sustatzeko proiektu berria da, Gasteizko Ruiz de Bergatarren Jauregian egoitza duena, eraikinaren jabetza Vitoria-Gasteizko Udalarena delarik. Kulturgunee berri honen kudeaketarako hitzarmen bat sinatzeko lehiaketa publiko bat abiarazi zuen Udalak 2022ko udazkenean. Lazarraga Kultur Elkarteak deialdi horretara bere proiektua aurkeztu eta 2022ko abenduaren 30ean Udalak kulturguneearen kudeaketa Elkarteari esleitzea erabaki zuen.

2023ko apirilean, Gasteizko Udalak eta Lazarraga Kultur Elkarteak kulturgunee kudeatzeko hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmenak 4 urteko iraupena du, 2023ko urtarrilaren 1ean hasita 2026ko abenduaren 31ra luzatzen da, eta beste 4 urtez luzatzeko aukera dago, betiere bi aldeak ados badaude. Halaber, hitzarmenean IAK jabari publikoaren emakidaren bidez kudeatuko dela zehaztu zen.

Lazarraga Kultur Elkarteak Kulturgunee berrian kultura-dinamika euskaratik eta euskaraz, modu integralean, lantzeko erantzukizuna izango du, aipatutako hitzarmena indarrean dagoen bitartean. Lazarraga Kultur Elkarteak 2013an sortu zen, dinamika integral horretarako beharrezkoa zen azpiegituraren sorrera bultzatzeko, hain zuzen ere.

Ruiz de Bergatarren Jauregia zaharberritu ondoren, eraikinak lau solairutan banatutako erabilera anitzeko aretoak eta eremuak ditu bai barne antolaketarako, bai erabilera publikorako. Erabilera publikoa izango duen eremu horietako bat ostalaritza zerbitzurako diseinatu da, Lazarraga Kultur Elkartearen ardura delarik espazio horren kudeaketa esleitzeko lizitazio-prozesua antolatzea. Establezimenduak jarduera sailkatuaren lizentzia du horretarako Gasteizko Udalaren izenean, alegia antzerki eta kontzertu aretoa eta ostalaritza elkartua duen kultur etxerako. Gaur egun ostalaritza elkartua 3. ordutegi multzoan sartuta dago (Pub lizentzia).

Kontratu honen xedea da IAKko ostalaritza eremua kudeatuko duen enpresa aukeratzea, publikotasunaren, berdintasunaren, eta lehia askearen printzipioak errespetatuz. Agiri honetan esleipen-prozesuaren inguruko informazioa bildu da, ostalaritza eremua proiektu osoaren dinamikan egoki txerta dadin bermatzeko asmoz.

Dokumentu honetan agertzen diren atalek kontratu-izaera izango dute eta taberna ustiatzeko aukeratutako enpresaren titularrak sinatu beharko ditu, bere adostasuna adierazteko, kontratua formalizatzeko ekintzan. Enpresaren titularrak bere gain hartuko ditu ostalaritza esparruan jarduteko ezinbestekoa den jarduera lizentziaren titulartasuna (dagokion pub lizentzia bere izenera eskualdatuz) zein tabernaren irekiera komunikazioa, eta haiek gauzatzeko erator litezkeen kostuak.

BALDINTZA TEKNIKOAK

1. INSTALAZIOEN DESKRIBAPENA

IaKk hiru sarrera ditu: bi Errementari Kaleko 30 eta 32 zenbakietan, eta beste bat Zapatari Kaleko 33an. Ostalaritza eremuari Zapatari kaleko sarrera dagokio eta komunikabide zuzena du kulturguneko areto nagusiarekin. Posiblea da taberna erabiltzea Kulturgunea itxita dagoenean.

- Tabernak 36,72 m²ko azalera du, eta bere gehienezko edukiera 35 pertsona da.
- Barrak badauka zonalde bat mugikortasun urriko pertsoneri artatzeko. Barraren atzealdean 2 pertsona aldi berean egon daitezke (35ez gain).
- Tabernara kaletik sartzeko 8,69 m²ko sarbide txiki bat dago. Taberna kafetera, beira-arasa, eta hozkailu batez hornituta dago.
- Soinu-mugatzaila du. Soinu-ekiporik ez dauka. Ekipoa instalatzea eta soinu-mugatzailarekin konektatzea (HF Pro enpresarekin) esleipendunaren kontura izango da.
- Tabernan musika jartzen bada, SGAEn ordainketa edota streaming-a, plataforma online edo beste esleipendunak egingo du.
- Tabernarekin lotuta 10,56 m²ko sukalde bat dago. Bertan aldi berean 2 pertsona egon daitezke.
- Sukaldearekin eta tabernarekin lotuta 10,07 m²ko biltegi bat dago tabernako produktuak gordetzeko.
- Tabernaren atzealdean dago areto nagusira joateko atea eta korridore batetik komunetara iristen da.
- PERI-1ean jasotzen denez, pubaren gehienezko azalera tabernako espaziora mugatuta dago. Antzokia ezin izango da tabernaren parte bezala erabili. Era berean, kaleko pertsianaren eta sarrerako lehengo atearen arteko espazioa ezin izango da tabernaren zati bezala erabili.
- Komunak mugikortasun urriko laguntzat egokituta daude.
- Tabernako espazioa antzokiaren larrialdiko ibilbidean dago. Horregatik, antzokian jarduerak egiten direnean bermatu beharko da ibilbide horrek gutxienez irteerako ateetako zabalera izango duela. Ezin izango dira bidea oztopatzen dituzten altzariak edo beste elementu batzuk jarri, ezta kaleko pertsiana jaitsi ere.
- Antzokian jarduerak egiten direnean, beti ere Lazarraga Kultur Elkarteak onartu eta gero, esleipendunak "ambigu" bat edariak zerbitzatzeko montatu ahalko du.

Eranskinetan honako informazio osagarri hau dago:

- Planoa, argazkiak, neurriak (sukaldea, kafetegia, biltegia eta komunak, eraikineko beste espazioekiko komunikazioa).
- Makineria mota eta kopurua zerrendatuta.

Udalak utziko dituen tresnen zerrenda (baxera, mahai-tresnak eta abar) dokumentu honen eranskinetan dago. Kontratua amaitzean espazioa kudeatuko duen enpresak itzuli beharko ditu.

Tabernako garbiketa, hau da, taberna, sukaldea, tabernako sarbidea, tabernako biltegia eta tabernako komunak nahiz hara joateko korridorea, esleipendunak egunero egingo du. Inoiz esleipendunari areto nagusia edo kulturguneko beste esparruren bat erabiltzeko baimena emango balitzaio esparru horren erabilera ondoko garbiketa esleipendunak egingo luke, edo bestela Lazarraga Kultur Elkartek kontratatutako enpresa esleipendunak ordainduko luke.

2. EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Esleipendunak gutxieneko irekiera ordutegi hauek bermatu beharko ditu:
Igandeak eta asteartetik ostegunera:

- 12:00etatik 15:00etara
- 19:00etatik 22:00etara

Ostiraletik larunbatera:

- 12:00etatik 15:30etara
- 18:00etatik 0:00etara

Esleipendunak astelehenetan ez zabaltzeko aukera izango du, hala erabakiz gero, astean atsedeen-egun bat bermatze aldera.

Tabernako ordutegiak egiterakoan kontuan hartuko da Kulturguneearen programazioa, batez ere publiko asko espero den jardueretan (kontzertu eta ikuskizun handiak). Jarduera hauek aintzat hartuko dira baita bezeroak artatzeko zerbitzari kopurua kalkulatzeko ere. Taberna Kulturguneko zerbitzu bat da eta bere jarduera Kulturgunekoarekin uztartu behar da nahitaez.

Gehienezko ordutegia lizentziari dagokion araudiaren arabera mugatuko da (Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren Legea garatzeko Erregelamenduko 32. Artikulua. 17/2019 Dekretua, otsailaren 5koa).

Arestian aipatutako ordutegiak egokitzeko aukera egongo da kontratua sinatzeko momentuan, IAKko irekiera ordutegiekin bateragarriak daitezen, kontuan izanda Lazarraga Kultur Elkarteen ardura dela Kulturgunea irekitzea eta ixtea. Lazarraga Kultur Elkartea eta esleipendunaren arteko kontratuan behin betiko ordutegiak jasoko dira.

3. JENDAURREKO PREZIOAK

Jendaurreko produktuen salmenta edo zerbitzuagatik jasotzen diren prezioak ostalariak bere proposamenean eskainitakoak izango dira.

Enpresa esleipendunak urteko KPIaren arabera eguneratu ahal izango ditu prezioak. Enpresak Lazarraga Kultur Elkarteari jakinaraziko dio edozer prezio aldaketa 15 eguneko gutxieneko aurrerapenez.

4. BETEKIZUNAK ETA ESKUBIDEAK

4.1. Enpresaren betekizunak

Oinarri hauetan ezarritakoez gain esleipendunak hurrengo betekizunak izango ditu. Berauek ez betetzeak penalizazioen atalean jasotakoaren arabera ekarriko du:

EUSKARA

IAKn lan hizkuntza euskara da. Hizkuntza hau erabiliko da Lazarraga Kultur Elkartearekin komunikazio guztietan, ahozkoak zein idatzizkoak izan.

Esleipendunaren langile guztiek ezinbestez euskaraz hitz egiteko gaitasuna izango dute. Litzitazioan onartua izateko nahikoa izango da sinatutako adierazpena aurkeztea esanez herritarrekin harremana izatea eskatzen duen zerbitzuak emateko kontratuta edo kontratatuko dituen pertsonak B2 gaitasun maila dutela ahozko trebetasunean.

Esleipendunak Lazarraga Kultur Elkartearekin harremanetarako duen arduradunak euskaraz hitz egiteko gaitasuna izan behar du (B2 gutxieneko gaitasun maila). Bera ordezkatzeko beharrezkoa den kasuan (gaixotasuna, oporrak, etab) ordezkokoak maila bera izan beharko du. Tabernako irudia euskarazkoa izango da: tabernaren kanpoko letreroa, arbela, barruan topatuko diren oharpenak, abisuak, argibideak, derrigorrez ikusgarri egon behar den informazio mota (IAKaren asteko edo hilabeteko egitaraua...), tabernako langileek IAKaren inguruan emango duten informazioa, dekorazioa...

LARRIALDIAK ETA AUTOBABES PLANA

Taberna ustiatzeko kontratua sinatzean, enpresak onartzen du indarrean dauden Autobabes Plana eta larrialdi kasuetarako ezarritako neurri guztiak. Berariaz bere gain hartzen du segurtasun edota larrialdietarako gailuak ez blokeatzeko edo eraldatzeko ardura.

Modu berean, enpresa Lazarraga Kultur Elkartearekin elkarlanean arituko da Larrialdi eta Autobabes Planei buruzko jarduera guztietan, baita simulazioetan, ebakuazioetan, hondamendietan eta abarretan ere.

Era berean, larrialdi kasuan ardurak dituzten langileek irtenbide independente eta iraunkorra bermatu beharko dute, edo Kultur Etxeko instalazioa kudeatu eta mantentzeak hala eskatzen duen guztietan.

Udalaren ardura da suteen kontrako alarma sistema mantentzea.

Aurrekoa kontuan hartuta, esleipendunak arduradun bat izendatu beharko du indarrean dauden eta kontratu honetan onartzen diren arau eta erregelamendu guztiak zaindu eta betetzeaz arduratzeko.

ELIKAGAIEN MANIPULATZAILE KARNETA

Tabernako langileek, edo gutxienez elikagaiekin lotutakoak, elikagaien manipulatzaile karneta indarrean eduki behar dute taberna martxan egon baino lehen. Iraungitze kasuan berri behar dute kontratuaren indarraldi osoaren bitartean.

PUBLIZITATEA ETA MARKAK

Taberna kulturgune batean txertatuta dago; kulturgune horren elementu bat da, eta berari zerbitzua emateko prestatu da. Hortaz, barruko elementu guztiak bat etorriko dira Kulturgunearenekin, tabernaren izena, kanpoko letreroa -Udalak jartzeko baimena ematen badu-.

Bertan esleipendunak kulturguneari buruzko informazioa bezeroen eskura jarriko du; arbela, barruan topatuko diren oharpenak, abisuak, argibideak, derrigorrez ikusgarri egon behar den informazio mota (IAKaren asteko edo hilabeteko egitaraua...), tabernako langileek IAKaren inguruan emango dituzten argibideak...

Esleipendunak, nolana ere, ezin izango du instalazioetan bestelako publizitaterik jarri Lazarraga Kultur Elkartearen ezagutzarik eta berariazko baimenik gabe. Ez kanpoko letreroan edo itzala emateko oihalean (oihal hau instalatzerik balego), ez barruko elementuetan.

BARRUKO INSTALAZIOAK

Taberna ustiatzen duen enpresak ezin du Lazarraga Kultur Elkartearen berariazko baimenik gabe telebistarik eta soinu ekiporik instalatu.

Soinu ekipoak ezinbestez dezibelioak mugatzeko gailua izango du. Soinu mugatzailearen instalatzea eta kalibratzea Udalaren ardura izango da eta taberna ustiatzen duen enpresak ezin izango du eraldaketarik egin. Udalak ez du erantzukizunik izango soinuarekin lotuta sortu daitezkeen arazoengatik, arau-hauste, edota isunekin.

Tabernako musika eta telebistako programazioa bat etorriko dira kulturgunearen filosofia eta programazioarekin. Lehentasuna izango dute beti euskarazko edukiek.

Txanpon-makinak zein apustu-makinak eta jokoak instalatzea erabat debekatuta dago.

Esparruan, altzarietan edo makinerian, tabernan zein biltegian, edozein aldaketa gauzatzeko, ezinbestekoa da Lazarraga Kultur Elkartearen baimena.

Kanpoaldean Zapatari kalean mahai-aulkiak instalatu ahal izateko, esleipendunak dagokion lizentzia eskuratu eta ordaindu beharko du. Lizentzian, aplikatu beharreko ordenantzan xedatutakoaren arabera, mahai-aulki kopurua, kokapena eta ordainduko beharreko tasa zehaztuko dira.

INGURUGIROA

Tabernako esleipendunak ingurumenaren arloan besteak beste, honako betekizun hauek izango ditu:

- Hondakinak birziklatzeko kudeaketa-plana (adibidez, enbalajea: murriztea, berrerabiltzea, material jasangarriak erabiltzea).

- Elikadura-aprobetxamendurako kudeaketa-plana: erosketa eta hornikuntza optimizatzea, elikagai-xahuketa murrizteko.
- Energia-efizientziako hornidurak eta ekipamendua emakidaren xede diren bi higiezinetan.

4.2. Esleipendunaren eskubideak

Jendearentzako salmenta-prezioak osorik jasotzeko, Administrazioei ordaindu beharko dien zergen eta tasen kalterik gabe.

Tabernako eguneroko hurrengo gastuak ez ordaintzea, Gasteizko Udalaren arduraren izango direlarik: argindarra eta ur kontsumoak, eta hondakinak biltzeagatik tasa.

Antzokian jarduerak egiten direnean, "ambigu" bat instalatzeko edariak zerbitzatu ahal izateko, betiere Lazarraga Kultur Elkartearen aurretiazko baimenarekin.

BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA JURIDIKOAK

1. BALDINTZA EKONOMIKOAK. KANONA, HOBEKUNTZA ETA BERMEA

KANONA

Kontratu honetako hileko kanon finkoa 750 € (+ BEZa) eurokoa izango da eta hileko lehen 5 egunetan ordainduko da Lazarraga Kultur Elkartearen kontu korrontean. Kanon finko honetan honako gastu hauek sartuta daude: argindarra, gasa, ura.

Kanona urtero urtarrilean eguneratuko da EAEko abenduko KPIaren arabera %2 arte gora zein behera.

HOBEKUNTZA

1. Aurkeztutako eskaintzan enpresa lizitatuzaileek hileko kanona hobetu (igo) dezakete.
2. Era berean, enpresa lizitatuzaileek kanon aldakor bat jarriko dute beren eskaintzan, diru-sarrerara garbien %4 baino txikiagoa ezin dena izan (BEZa sartu gabe) Kanon aldakor hori hiru hilean behin ordainduko da, hiruhilekoa bukatutakoan. Kopurua kalkulatzeko biderkatuko dira hileko salmenta garbien zenbatekoa eta alde aurretik eskainitako ehunekoa. Horretarako esleipendunak Lazarraga Kultur Elkarteari BEZaren zuriketen kopiak aurkeztuko dizkio tabernako salmenten hilabetearen desglosearekin batera. Gune hau ustiatzearen ondorioz sor daitezkeen diru-sarrerak kultura-proiektua finantzatzeko erabiliko ditu Lazarraga Kultur Elkartek.

BERMEA

Esleipendunak kontratua sinatzearekin batera kontratuaren balioaren %15eko diru-kopurua berme gisa jarriko du. Kopuru honen estimazioaren arabera kontuan hartuko da ordaindu beharreko 26 hilabeteetako hileko kanona esleitzeko momentuan dagoen prezioan. Adibidez, 750 euroko kopururako berme gisa jartzeko kopurua 2.925 eurokoa litzateke.

Diru-kopuru hau Lazarragari ordainduko zaio transferentzia bidez Laboral Kutxaren ES1330350080900800074353 kontu zenbakian.

Bermea ezin da erabili hileko kanona ordaintzeko.

Kopuru hau kontratua amaitu eta 2 hilabetera itzuliko da osorik taberna, makineria, ekipoak eta ondasun guztiak egoera onean baldin badaude.

6. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA LUZAPENA

Kontratua esleitu eta gehienez hilabetera behin betiko kontratuaren dokumentua irabazlearekin sinatuko da. Kontratua sinatu ondoren esleipendunak 2 hilabete arteko epea izango du taberna irekitzeko.

Kontratuaren indarraldia 2024ko urriaren 15etik 2026ko abenduaren 31ra arte luzatuko da, betiere Udalak ez badu data hori baino lehen Lazarraga Kultur Elkartearen hitzarmena azkentzen.

Data horretatik aurrera kontratua beste lau urtez luzatu liteke, baldin eta Lazarraga Kultur Elkartea eta Vitoria-Gasteizko Udalak hitzarmena luzatzea adostuko balute.

Aldeek kontratua salatzeko aukera izango dute. Aukera hori baliatzeko 12 hilabeteko gutxienerako epea bete beharko dute.

7. ENPRESAREN GAITASUNA

Jarduteko gaitasuna egiaztatze aldera enpresak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du kontratua sinatu baino lehen:

- Proposamena aurkezten duen pertsonaren nortasun-agiria, bere izenean nahiz ahaldun gisa aurkezten duelarik ere.
- Pertsona juridikoak diren enpresen jarduteko gaitasuna Merkataritza Erregistroan inskribatutako eratze- edo aldatze- eskrituren bidez egiaztatu beharko da, aplikatzekoa den merkataritza-legediaren arabera betekizun hori eskatzekoa denean. Betebehar hori bete beharrik ez badago, eskritura edo eratze-agiria, estatutuak edo sortze-akta aurkeztuz egiaztatu beharko da jarduteko gaitasuna jarduera-arauak jaso beharko ditu delako agiriak, eta, kasua bada, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egon—.
- Kontratatzeko inolako debekurik ez duelako erantzukizunpeko adierazpen bat.
- Dagokion Administrazioak emandako ziurtagiria, indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emandako administrazio ziurtagiria edo, hala badagokio, dagokion mutuaren alta eta erakunde horrekin egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Gaitasun ekonomikoa: Esleipendunak kontratua gauzatzeko gaitasuna egiaztatu beharko du lizitazioaren xede den jarduera beraren kudeaketan esperientzia deskribatuz eta azken hiru urteotako urteko lan-bolumena urte onenean 30.000 €tara iritsi dela frogatuz Merkataritza erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuen bidez).

8. ASEGURUA

Esleipendunari dagokio erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzea, egin beharreko jarduera behar bezala estaliko duena, eta kontratuak irauten duen bitartean indarrean izatea. Lazarraga Kultur Elkartek aseguratu gehigarriaren izaera izango du, horregatik hirugarrenaren izaera galdu gabe.

Kontratua formalizatu aurretik aseguru horiek badituela egiaztatzeaz gain, berritu eta ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du urtero esleipendunak, kontratuak iraun bitartean.

Esleipendunak kontratatutako polizak gutxienez 1.000.000 €ko istripuagatiko erantzukizun zibila eta 450.000 €ko muga-kapitala biktima bakoitzeko izango du. Horrez gain polizan jasoko dira erabilera desegokiak sortutako kalteen ondorioz makinera eta altzariak lehengo egoeran berriz jartzeko erantzukizuna.

9. ENPRESA-KOORDINAZIOA (LAP)

Laneko arriskuen prebentzioaren esparruan Lazarraga Kultur Elkartek Lan Arriskuen Prebentzioaren gaineko informazioaren berri esleipendunari emango dio, eta bere aldetik haxe eskatuko dio esleipendunari:

- TC1
- TC2
- Enpresaren arriskuen ebaluazioa
- Prebentzio zerbitzua
- Langileen osasun azterketa (edota osasun azterketari uko egin izanaren dokumentua)
- EPlak entregatu izanaren ziurtagiria: Arropa, latexezko eskularruak, ilea jasotzeko txanoak...
- Langileen laneko arriskuen prebentzioari buruzko formazioa eta informazioa
- Elikagaien manipulatzailer karneta
- Datuen babeserako legea

10. ARRISKUA ETA MENTURA

Esleipendunak bere gain hartuko ditu jarduera garatzearen eta egikaritzearen ondoriozko arriskua eta mentura; Lazarraga Kultur Elkarteak, berriz, ez du inolako erantzukizunik hartuko horri dagokionez. Lazarraga Kultur Elkarteak ez du inolako erantzukizun penalik, zibilik, edo beste edozein motatako erantzukizunik izango esleipendunari dagokion jardueran, ez ordainketak egingo ez balira, ez hornitutako kontsumo produktuen ondorioz toxikaziorik gertatuko balitz, ezta beste arrazoi dela medio ere.

Esleipendunak ez du inola ere eskubiderik izango Lazarraga Kultur Elkarteari eskatzeko ostalaritza eremua osatzen duten ondasunen erabileran eta aprobetxamenduan oreka ekonomikoa berma dezala.

Lazarraga Kultur Elkarteak espresuki onartutako ezinbesteko kasuetan baino ezingo du kanona ordaintzetik salbuetsi, betiere justifikatuta eta aldi baterako. Ondorio horietarako, honako hauek joko dira ezinbesteko kasutzat:

- Atmosferaren elektrizitatearen ondorioz sortutako suteak.
- Hondamendi-jatorrizko fenomeno naturalak.

Gasteizko Udalak Lazarraga Kultur Elkartearekin IAK kudeatzeko duen hitzarmena aurreikusitako epea amaitu baino lehen azkentzea erabakiko balu tabernaren esleipendunak ez luke inolako kalte-ordainik eskatzeko eskubidea izango.

PROPOSAMENEN ESLEIPENA ETA AURKEZPENA

11. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

- Kalitate teknikoa 70 puntu: Enpresek txosten bana aurkeztuko dute beren proposamena zehazteko. Proposamenak gutxienez honako kontu hauek jasoko ditu:
 - Ostalariak proposatzen duen negozio mota, ezaugarriak eta ordutegiak (eskainiko diren zerbitzu motak, produktuen kartaren eta eskaintza gastronomikoaren xehetasunak, prezioak...)
 - Ostalariak duen langileria; ordutegiak, funtzioak, lan baldintzak
 - Ostalariaren eskarmentua antzeko negozioetan datak eta fakturazio bolumenarekin
 - Ostalariaren konpromisoak pleguaren arabera: RC Aseguruaren ezaugarriak, LAP, gaitasuna, euskara, elikagaien manipulatzailer karnetak...
- Proposamen ekonomikoa 30 puntu:
 - Kanonaren igoera. 15 puntu. Eskaintzarik onenari 15 puntu emango zaio, igoerarik egiten ez duenari 0 puntu; beste proposamenak modu proportzionatuan puntuatuko dira.
 - Sarrera garbien gaineko kanona. 15 puntu. . Eskaintzarik onenari 15 puntu emango zaio, %4aren gainetik igotzen ez duenari 0 puntu; beste proposamenak modu proportzionatuan puntuatuko dira.

Berdinketa gertatuz gero, hausteko irizpideak:

- Puntuazio orokorrean berdinketa egonez gero, kalitate teknikoan puntuazio onena duenak irabaziko du.
- Hala ere, berdinketak irauten badu, ordutegi zabalena eskaintzen duen proposamenak irabaziko du.

12. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA, TOKIA ETA EPEA:

PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

“A gutun-azala”: Kalitate teknikoa 70 puntu: Enpresek txosten bana aurkeztuko dute beren proposamena zehazteko. Proposamenak gutxienez honako kontu hauek jasoko ditu:

- Ostalariak proposatzen duen negozio mota, ezaugarriak eta ordutegiak (eskainiko diren zerbitzu motak, produktuen gutunaren eta eskaintza gastronomikoaren xehetasunak eta jendaurreko prezioak...)
- Ostalariak duen langileria; ordutegiak, funtzioak, lan baldintzak
- Ostalariaren eskarmentua antzeko negozioetan
- Ostalariaren konpromisoak pleguaren arabera: RC Aseguruaren ezaugarriak, LAP, gaitasuna, euskara, elikagaien manipulazaila karnetak...

“B gutun-azala”: formula matematikoen bidez baloratu ahal diren irizpideak: lizitatzailaren proposamena

- Kanonaren igoera. 15 puntu. Eskaintzarik onenari 15 puntu emango zaio, igoerarik egiten ez duenari 0 puntu; beste proposamenak modu proportzionatuan puntuatuko dira.
- Sarrera garbien gaineko kanona. 15 puntu. Eskaintzarik onenari 15 puntu emango zaio, %4aren gainetik igotzen ez duenari 0 puntu; beste proposamenak modu proportzionatuan puntuatuko dira.

Proposamen ekonomikoa ezingo da izan agiri honetan ezarritako kanona baino txikiagoa. Proposamen ekonomikoa finkatutako tasa baino txikiagoa bada, baztertu egingo da eskaintza.

PROPOSAMENAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

Proposamenak IAKn aurkeztuko dira bulego orduetan (9:00-14:00), edo baliabide elektronikoz edota postaz bidaliko dira, agiri hau lurraldeko komunikabideetan argitaratu ondorengo hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 21 egun naturaleko epean. 21. Egunean IAK itxita balego aurkezteko epea hurrengo lan egunera arte luzatuko litzateke.

Bertan aurkezteko edo postaz bidaltzeko helbidea (kasu honetan, bidalketaren data justifikatu beharra dago Correosen emandako agiri baten bidez) Errementari kalea 30-32, 01001 Vitoria-Gasteiz

Posta elektronikoz bidaltzeko helbidea: administrazioa@lazarraga.eus

Eselependun bakoitzak proposamen bat bakarrik aurkeztu dezake. Ezin izango da aldi-baterako enpresa elkartearen proposamenik egin aurretik beste bat bakarka egin bada.

GUTUN-AZALAK IREKITZEA

Gutun-azalak irekiko dira:

A Gutunazala: IAKn, urriaren 4an. Ekitaldia publikoa izango da.

B Gutunazala: IAKn, urriaren 7an. Ekitaldia publikoa izango da.

Lazarraga Kultur Elkarteak, aurkeztutako proposamenen artean, irabazlea erabakiko du, proposamen bakoitzak arlo teknikoan eta ekonomikoan lortutako puntuazioa batu eta gero. Parte hartu duten enpresa guztiei emaitza jakinaraziko zaie.

BISITA TEKNIKOA ETA ARGIBIDEAK

Lizitazio epea irekita dagoen bitartean interesa eduki lezaketen guztiontzat tabernaren ezaugarriak erakusteko eta zalantzak argitzeko bisita bat antolatuko da irailaren 19an goizeko 10:00etan. Interesatuak aldeztu aurretik interesa idatziz agertu beharko dute beheko helbidean.

Era berean lizitazio epea irekita dagoen bitartean interesdunek argibideak eska ditzakete administrazioa@lazarraga.eus helbidean, 747 407 841 telefonoan, edota IAKn bertan (Errementari Kalea, 30-32, 9:00-14:00etan).

13. ARAU-HAUSTEAK, PENALIZAZIOAK ETA GORABEHERAK

ARAU-HAUSTEAK ETA PENALIZAZIOAK:

Oinarri honetan jasotako edozein betebeharrak ez betetzea arau-haustetzat hartuko da, eta zehaztutakoaren arabera zigortuko da. Arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke:

Arinak: Erabiltzaileentzat arriskuak sortzen ez duten ekintzak edo betegabeko lanak

- Bezeroei tratua ona ez ematea
- Gutxieneko ordutegiak ez betetzea, aldeztu aurretik ez bada adostu Lazarragarekin
- Jarduera lizentzia eta prezioak publikoki ez agertzea
- Produktuak edo enbaseak biltegitik kanpo pilatzea

Larriak: Falta arinen errepikapena, edo arriskuak sor ditzaketen ekintzak edo betegabeko lanak

- Baldintza sanitarioak ez betetzea
- Onartu ez diren lekuak okupatzea terrazan, tabernan edota antzokian
- Auzolagunak molestatzea (zaratak, tratua desagokoa, zikinkeria...)
- Publizitatea jartzea Lazarragaren onartu gabe
- Obrak, konponketak edota eraldaketak egitea Lazarraga Kearen baimenik gabe
- Ekitaldi pribatuak egin Lazarraga Kearen baimenik gabe

Oso larriak: Falta larrien errepikapena, edo arrisku biziak sor ditzaketen ekintzak edo betegabeko lanak:

- Inspekzioak, autoritateek edota Lazarraga Kek egindako errekerimenduei kasurik ez egitea.
- Garbiketa falta establezimenduan edota langileriarengan.
- Baimenduta ez dauden produktuak saltzea
- Onartu ez diren jarduerak egitea.
- Lizitazioan hartutako konpromisoak ez betetzea
- Bezeroen osasuna arriskuan jarri baldintza txarretan dauden produktuak saltzeagatik.
- Drogen kontsumoa onartzea
- Kanona edota aseguruia ez ordaintzea
- Kontratua lagatzea Lazarraga Kearen baimenik gabe
- LAPa ez betetzea

PENALIZAZIOEN TAULA

- Arau-hauste arinak: 300-750 €ko isuna
- Arau-hauste larriak: 751-1500 €ko isuna
- Arau-hauste oso larriak: 1501-3000€ko isuna

Horrez gain, urtebeteko epean 3 arau-hauste larri edo 1 oso larri nahikoa izan daitezke Lazarraga KEak kontratua amaitutzat emateko, esleipendunak erreklamatzeko eskubiderik gabe.

Arau-hausteak Lazarraga KEak kalifikatu eta ezarriko ditu, beti ere esleipendunari entzun ondoren.

GORABEHERAK EBAZTEA

Lehiaketaren irabazlearekin sinatuko den kontratua izaera zibilekoa izango da, eta zuzenbide zibilaren mende egongo da, interpretatzeari eta garatzeari dagokionez.

Kontratu honen inguruko edozein kontu dela eta -interpretazioa, aldaketa, eraginak, bertan behera uztea- auzia sortuz gero, jurisdikzio zibilaren eskumenekoa izango da.

ERANSKINAK